



ERRONKA 2019- ZARAUTZ

Jarraian urriaren 6an Zarautzeko Kilometroak jaian egingo den Erronkako proben azalpen laburra duzue:

EKOLIO ikastolara iristen zaizue ? Erabilitako olioak pote batean jaso eta potea ahalik eta gehien beteta ekartzeagatik puntuak lortuko dituzue.

30 segundo dituzue oholta gainean zuen taldea originalena, koordinatuen... dela erakusteko. Nola? Kmk kantaren **KOREOGRAFIA** eginez.

Ba al dakizue mapak interpretatzen? **ORIENTAZIO PROBAN** erakutsi beharko duzue zuen ezagutza. Ea zehaztutako puntuak topatzea lortzen duzuen!

Herriko bertsolariek **BERTSOAK** egin dituzte, baina nahastu xamar dabilta eta oinak galdu dituzte. Berauek lortu eta ondo kokatzen lagundu beharko diezue.

TRIATLOI ESTATIKOAN ohiko hiru modalitatetan arituko zarete baina zergatik dago Getariako arratoia beti bezain urrun? Ez gara mugitzen!


LABERINTOA: Kana erdia, libra,... ezagunak egiten al zaizkizue? Aintzinean gurean erabiltzen ziren magnitudeak erabili beharko dituzue proposatzen dizuegun buruketaren emaitza lortu eta labirintoan sartzeko. Eta ez ahaztu buruketaren emaitza, irteera topatutakoan ezinbestekoa izango baita proba bukatzeko.

3 LERROAN: Helburua “ 3 lerroan” egitea da, baina fitxa lortzea ez da hain erraza izango. Eredu gisa emango zaizuen korapiloa ahalik eta bizkorren egin, surf taula hartu eta uretan dagoen boilara joan-etorria egin beharko duzue fitxa lortzeko. Hondartzara bueltatzean ondo pentsatu fitxa non jarri eta kontutan izan, zenbat eta fitxa gehiago lortu 3 lerroan egiteko aukera gehiago izango dituzuela!

HI SELFIE ezaguna egingo zaizuen programan bezalaxe, ordu erdian, erakutsitako argazkiaren ahalik eta irudirik berdintsuena irudikatu beharko duzue.

SUKALDARITZA: Bi helburu izango ditu, alde batetik epaimahaiaren puntuazio ahalik eta altuena lortu, eta taldekide guztientzat bazkari goxo bat prestatu bestetik.

ARTELANA: Gogoratzen hondartzan egindako gaztelu guztiak? Txikitako oroitzapenetatik abiatuz ikasitako guztia erakusteko aukera duzue hondarretako irudi ikusgarria eginez.




Talde guztiek proba guztiak egingo dituzte? EZ

Ekoltoa, Bertsolaritza, Koreografia eta Orientazio probetan talde guztiek hartuko dute parte.

“Hi Selfie eta 3 lerroan proba” alde batetik, eta “Labirintoa eta Triatloi Estatikoa” bestetik, bi Erronka bloke izango dira eta taldeen erdiak bloke bat, eta taldeen beste erdiak beste blokea egingo dituzte.

Artelana eta Sukaldaritza probak direla eta, “Hi selfie eta 3 lerroan” edo “Labirinto eta Triatloi estatikoa” bukatu baino lehen jarriko ditugu martxan. Beraz, taldekideek artista edo sukaldari lanekin tartekatatu beharko dituzte bestelako zereginak...

Animatu eta parte hartu, sekulako eguna pasatuko dugu eta!



ni, hi, hura, ikastola mundura!